



**BAZTANGO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

**2015eko URRIAREN 21eko EZ-OHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURA**

**SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA Y URGENTE DE 21 DE OCTUBRE DE 2015**

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2015eko urriaren 21ean, 9:00etan, Baztango Udal Osoko Bilkuran bildu da, ez-ohiko eta premiazko bileran, Joseba Otonto Bikondoa alkate jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Maite J. Iturre Llano, Juan Cruz Iriarte Bañez EH-BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriaria, María Isabel Olave Ballarena, María Carmen Iribarren Iribarren, UPN taldekoak; Rubén Ciganda Sanz, Ioseba Moreno Videgain, GEROA BAI taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturrealde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Alejandro Martín Ibarra BAZTAN AUZOLANEAN taldekoa.

Idazkari lanetan, Iulen Urbiola Loiarte jauna aritu da.

Ez dira bertaratu: Mikel Ortega Arraztoa (EH-BILDU), José Javier Aguirre Azcarraga (UPN).

Alkatearen aginduz, bilkura hasi da.

**1.- DEIALDIA PREMIAZKO IZATEA BERRESTEA.**

Nafarroako Toki Entitateko 6/1990 Foru Legearen 78.1 artikuluari, eta Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineke Erregelamendua ezartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79 artikuluari jarraituz, osoko bilkurak deialdiaren premiazko izaera ahobatez berresten du.

**2.- BAZTANGO UDALAREN OSKO BILKURAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Alkateak ondoko adierazpena aurkezten du:

“Asteburuan Baztanen izandako sexu eraso salaketaren berri izan ondoren, Baztango Udalak ustezko gertaera hau irmoki errefusatzen duela adierazten du eta gure babes eta elkartasunik beroena helarazten diogu erasoa pairatu duen emakumeari eta bere familiari.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 9:00 horas del día 21 de octubre de 2015, se reúne, en sesión extraordinaria y urgente el Pleno Municipal, presidido por el alcalde Joseba Otonto Bikondoa, y con la asistencia de los siguientes concejales: Maite J. Iturre Llano, Juan Cruz Iriarte Bañez por el grupo EH-BILDU; Begoña Sanzberro Iturriaria, María Isabel Olave Ballarena, María Carmen Iribarren Iribarren, por el grupo UPN; Rubén Ciganda Sanz y Ioseba Moreno Videgain, por el grupo GEROA BAI; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturrealde Eliceche, por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Alejandro Martín Ibarra, por el grupo BAZTAN AUZOLANEAN.*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loiarte.*

*No asisten: Mikel Ortega Arraztoa (EH-BILDU), José Javier Aguirre Azcarraga (UPN).*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*


**1.- RATIFICACION DE LA URGENCIA DE LA CONVOCATORIA.**

*En virtud de lo establecido en el artículo 78.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de junio, de la Administración Local de Navarra y el artículo 79 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades locales, por unanimidad se ratifica el carácter urgente de la convocatoria*

**2.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN.**

*Alcaldía presenta la siguiente declaración:*

*“El Ayuntamiento de Baztan, al tener conocimiento de la denuncia de agresión sexual que ha tenido lugar este fin de semana en Baztan, comunica que rechaza firmemente esta presunta agresión y traslada su solidaridad a la mujer que la ha sufrido y a su familia.*



Jakin badakigu, gertakari hau ez dela gertakari isolatu bat izan, egungo jendartean bizi ditugun sexuen arteko botere harremanen ondorio zuzena baizik. Jendarte parekidea eraikitzeko eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak gainditzeko beharra inoiz baino ageriago uzten du gertaera mota honek. Horretan ardura berezia dugu erakunde publikoek.

Indarkeria eta eraso matxistak **ezin dira gertaera isolatu edo salbuespen gisa ulertu**. Besta giroan ematen diren erasoak beste edozein eremutan ematen diren eraso matxista bezain larriak dira.

Indarkeria matxista **lehen mailako arazoa** da. Emakumeen eguneroko ogia. Oraindik, neurri handi batean, ezkutuan mantentzen da, justifikatu eta tapatu egiten da. Ez da inola ere, ordea, esparru pribatuari dagokion arazo bat. Arazo kolektiboa da, guztiona, eta guztiak ardura da indarkeria matxistari aurre egitea.

Indarkeria matxistak jatorri estrukturala duen heinean, aurre egiteko **neurriak eta erantzunak ere integralak** behar dute izan. Pertsonen arteko harreman-sistema berria sortzea da erronka, gaur egungo antolaketa eta ordena soziala eraldatzea, azken finean. Horrekin batera, indarkeriaren **prebentzioan** egin behar da bereziki ahalegina. Pertsonak askatasunean eta berdintasunean hezikoz dituen **hezkuntza** sustatu behar da. Pertsonon sozializazio-prozesuei erreparatzea ezinbestekoada, hortaz.

**Besteak beste, egungo jendartean dauden estereotipoak eraldatu behar dira.**

Era berean, ezinbesteko da **emakumeen boteretzea eta herritarren arteko babes-sareak** sustatzeko neurriak martxan jartzea, bakardade sentsazioari eta babesgabetasun egoerei aurre egiteko.

Horregatik guztiagatik, Bartzango Udalak:

- .- Edozein motatako indarkeria sexista errefusatzen du.
- .- Gure elkartasuna helarazten diogu sexu erasoa salatu duen emakumeari eta bere familiari.

*Sabemos que no es un suceso aislado sino la consecuencia de las relaciones de poder entre sexos que vivimos en la sociedad actual. Este tipo de ataques deja más clara que nunca la necesidad de construir una sociedad paritaria y superar las relaciones de poder entre hombres y mujeres. Las instituciones públicas tenemos una responsabilidad especial en ello.*

*La violencia y los ataques machistas no pueden ser abordados como actos aislados o excepcionales. Las agresiones machistas que se producen en el contexto festivo son tan graves como las que se dan en cualquier otro contexto.*

*La violencia machista es un problema de primer orden. Es el pan de cada día para muchas mujeres. Sin embargo, en gran medida, todavía hoy se mantiene como un problema escondido, se justifica y se tapa. A pesar de ello, no es, de ninguna de las maneras, un problema que se circunscriba al ámbito privado. Es un problema colectivo y por lo tanto, nos corresponde a todas y a todos hacer frente a la violencia machista.*

*Teniendo en cuenta el origen estructural de la violencia machista, las medidas de respuesta para hacerle frente deben ser estructurales. Resulta evidente que el fundamento principal para buscar la solución es la construcción de un nuevo sistema de relacionarse entre personas, es decir, transformar en última instancia tanto la organización como el orden social vigentes actualmente. Además, hay que hacer un esfuerzo especial en la prevención de la violencia. Hay que fomentar una educación que forme a las personas en libertad e igualdad. Por lo tanto, es indispensable prestar atención a los procesos de socialización de las personas.*

*Entre otras cosas, hay que transformar los estereotipos existentes en la sociedad actual.*

*De la misma manera, en lugar de profundizar en la victimización de las mujeres, es indispensable el empoderamiento de las mujeres y la puesta en marcha de redes de apoyo entre la ciudadanía.*

*Por todo esto, el Ayuntamiento de Bartzan:*

- Rechaza cualquier tipo de violencia sexista.*
- Hacemos llegar nuestra solidaridad a la mujer que ha denunciado la agresión sexista así como a su familia.*

.- Konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako Udal politika aktibo eta koordinatua garatzeko.


.- Gonbitea egiten die herritar guztiei, konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista errefusatzeko ere.

.- Bat egiten du urriaren 21ean, asteazkenarekin, arratsaldeko 19:00etan Elizondon, Foru plazan eginen den elkarretaratzearekin eta bertan parte hartzera deitzen ditu herritarrok.

Alkateak bozkatzen deitzen du. Udalbatzak **adierazpen instituzionala aho batez onartu du**.

Jarraian, alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du, goizeko 9:30ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA  
EL ALCALDE



IDAZKARIA  
EL SECRETARIO



.- Se compromete a desarrollar políticas municipales activas y coordinadas en contra de la violencia hacia las mujeres, en el ámbito de su jurisdicción.

.- Invita a toda la ciudadanía a tomar compromisos personales y colectivos, a favor de la igualdad de mujeres y hombres, así como a rechazar cualquier violencia o discriminación sexista.

.- Se adhiere a la concentración que se realizará en Elizondo, en la plaza de los Fueros, el día 21 de octubre a las 19:00 de la tarde y anima a toda la población a participar en ella.

*Alcaldía llama a votar. El Pleno por unanimidad aprueba la declaración institucional.*

*Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 9:30 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

